

Emakumeek egindako komikiak aztertuko dituzte bihar Algortan

Ostiral honetan, martxoak 6, emakume-komikien inguruko topaketa egingo dute Algortako kultur etxean (Villamonte), espainolez. Ekitaldiak ' Comics creados por mujeres ' du izenburua eta Skolastika kolektiboko Josune Muñozen eskutik izango da. Topaketa 19:00etan hasi eta sarrera doakoa izango da. ' Emakumeek egindako komikiak aztertuko dira, ikuspuntu historikoz eta geografikoz baliatuta. Halaber, dibulgazio jarduera horretan publikoak liburutegiko liburu-bildumako zenbait komiki ikusteko aukera izango du eta bederatzigarren arteko zenbait maisu-lan komentatuko dira; gaia, edukia, marrazki estiloa, eragin edo originaltasuna dela eta, egungo emakume-komikia ezagutzeko derrigorrezko irakurgaiak dira hautatutako lan horiek ' , azaldu dute tokiko kultur iturriek. Ekitaldian zehar parte hartzeko, eztabaida egingo da. Argazkian, biharko jardunaldia iragartzeko kartela.

Besteak beste, emakumeek eginiko komikiak eta gizonezkoek egindakoak aldean desberdinak diren eztabaidatuko da. Horrezaz gain, beste alderdi batzuk ere aztertuko dira: egileen begirada, marrazten dituzten istorioak, jorratzen dituzten generoak, eta abar. Horren guztiaren bidez emakumeek eginiko komikian sakondu nahi da eta, aldi berean, azken urteotan diziplina artistiko horretan izandako boom-era hurbildu. Azkenik, topaketaren amaieran proposamen bibliografiko bat banatuko da daudenen artean. Horretan liburu sorta bat bildu da zaleak emakumeek eginiko komikiak irakurtzen hasi daitezen edo lan horietan sakondu dezaten.